

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza aldatzeari

Udalak, 2024ko urriaren 24ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza aldatzeari.

Iragarkia 2024ko urriaren 30eko ALHAOn, 124. zenbakian, argitaratu zen, eta jendaurrean egon bitartean ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onetsi da, eta honela geratu da idatzita:

“ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Udal honek, bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin, eranskinean ageri diren zerbitzu eta jardueren prezio publikoak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honetan ezarritako eran, zeinaren zati baitira.

2. artikulua. Ordenantza hau Artziniegako udalerrri osoan aplikatzen da.

3. artikulua. Ordenantza honetan araututako prezio publikoak horiek ordaindu beharra sortzen duten zerbitzuen edo jardueren onuradunek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua. Ordenantza honetan araututako prezio publikoen tarifak eranskinean daude jasota.

5. artikulua. Kopuru horiek, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu behar dira, eta epigrafeetan azaltzen diren zenbatekoak ezingo dira murriztu.

6. artikulua. Ordenantza honetako zerbitzuak edo udal jarduerak jaso ahal izateko, eskaera egin behar zaio aurrez Artziniegako Udalari. Zerbitzu edo jarduera horiek emandakotzat joko dira, betiere ordenantza honetako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean, eta luzatu ondoren, prezio publikoa ez ordaintzeak berez eta besterik gabe ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. artikulua. Ordenantza honetako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortzen da.

Hala ere, dagoeneko eman eta luzatutako zerbitzuak edo jarduerak badira, ordaindu beharra sortzen da dagozkien tarifetan adierazten diren aldietako bakoitzaren lehenengo egunean.

8. artikulua. Adierazitako gutxieneko zenbatekoa zuzenean udalaren kutxetan sartuta ordaindu behar da prezio publikoa, zerbitzua eman edo jarduera egin baino lehen.

9. artikulua. Dagokion zenbatekoa itzuliko da jarduera egiten ez bada eta ez egitearen arrazoiak ezin bazaizkio egotzi prezio publikoa ordaindu behar duenari.

10. artikulua. Prezio publikoak ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta haren eranskina ALHAOn argitaratzen diren egunean jarriko dira indarrean, eta indarrean jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

ERANSKINA**TARIFAK****1. EPIGRAFEA: FOTOKOPIAGAILUA ERABILTZEA.**

A-4 paperezko dokumentuen fotokopiagatik: 0,10 €/folio.

A-3 paperezko dokumentuen fotokopiagatik: 0,15 €/folio.

2. EPIGRAFEA: MUSEO ETNOGRAFIKORAKO SARRERA.

• Sarrera orokorra: 4,00 euro.

• 15 pertsona edo gehiagoko taldeak, erretiratuak, langabeak, minusbaliotasuna dutenak, gazte txartela dutenak, familia ugarien txartela dutenak: 3,00 euro.

• Ikasle taldeak:

Lehen Hezkuntzako ikasleak: 2,00 euro pertsonako.

Bigarren Hezkuntzako ikasleak: 3,00 euro pertsonako.

• 6 eta 12 urte bitarteko umeak: 2,00 euro.

• 6 urtetik beherakoak eta ikasle taldeen edo mendekotasuna duten pertsonen laguntzaileak: salbuetsita.

• Museoko lagunen urteko abonamendua: 15,00 euro (doako sarrera txartelaren titularrarentzako eta 2,00 euro harekin doazenentzako).

• Sarrera doan: Museoen Nazioarteko Eguna, maiatzaren 18a.

3. EPIGRAFEA: KULTURA, KIROL ETA GIZARTE JARDUERAK.

Aisialdi eta prestakuntza ikastaroak.

Prezio publikoa banku helbideratzearen bidez ordainduko da, ikastaroa hasi eta hurrengo bi asteetan, zergapekoak izena emateko eskaeran emandako banku datuen arabera. Udalak ikastarora joan daitekeela jakinarazi ondoren, prezio publikoaren kobrantza baliogabetu ahal izango da soilik ikastaroak hasi aurretik udaleko erregistro orokorrean baja eskaera aurkeztuz gero, betiere taldearen sorrerari eragiten ez badio, edo ikastaroa hasi ondoren, behar bezala egiaztatutako medikuaren edo laneko egiaztagiria aurkeztuz gero.

TARIFAK

– Ordubeteko ikastaroak, lauhilekoa: 28,00 euro.

– Ordubeteko ikastaroak, lauhilekoa: 22,00 euro (tarifa murriztua).

– 1,30 orduko ikastaroak, lauhilekoa: 41,00 euro.

– 1,30 orduko ikastaroak, lauhilekoa: 33,00 euro (tarifa murriztua).

– 2 orduko ikastaroak, lauhilekoa: 55,00 euro.

– 2 orduko ikastaroak, lauhilekoa: 44,00 euro (tarifa murriztua).

Honako hauei aplikatuko zaie tarifa murriztua: ikasle txartela dutenei; langabezia daudenei, baldin eta egoera hori egiaztatzen badute Lanbiden izena emandako aldien ziurtagiri baten bidez edota SEPEko prestazioen ziurtagiri baten bidez; familia ugarietara (ordenantza honen IX. eranskinean jasotzen den familia unitateko errenta bera dutenak), eta udalerrian erroldatuta dauden eta DSBE jasotzen duten familiei.

(Hobari horiek eskatu egin behar dira, eta frogagiria edo egiaztagiria aurkeztu behar da).

65 urte edo gehiagoko pertsonak ez dute tarifarik ordaindu beharko adin tarte horretarako mantentze gimnasia.

Ikastaro edo jarduera bakoitza egiteko gutxieneko ikasle kopurua Kultura eta Kirol Arloak erabakitzen duena edo egokientzat jotzen duena izango da. Izen emate kopurua plaza kopurua baino handiagoa bada, zozketa bidez esleituko dira plazak, baina lehentasuna izango dute Artziniengan errolatuta dauden pertsonak.

Inork ezin du izena eman Kultura eta Kirol Arloak eskaintzen dituen hiru ikastaro edo jarduera baino gehiagotan, ez eta programatutako ordutegiak bat datozen ikastaro edo jarduera batean baino gehiagotan ere. Hala eginez gero, ez da izen emate bat bera ere kontuan izango.

Ezin dira inola ere egunak eta ordutegiak aldatu, nahiz eta jarduerak izaera berbera izan. Beraz, inor ezin da taldez aldatu, dagokion zerbitzuaren berariazko baimena jaso ezean.

Izena emateko epea amaitu ondoren, udaleko Kultura eta Kirol Arloak eskubidea izango du ikastaroetako pertsona kopurua handitzeko, betiere beste ikastaro bat egitea eragiten ez badu eta dagoeneko eratuta dagoen ikastaro bat aldarazten ez badu. Ikastaroa hasitakoan plaza hutsak badaude, lehenik eta behin erreserban dauden pertsonak izango dute sartzeko eskubidea; ondoren, izena emateko eskaera epez kanpo eman dutenak sartu ahal izango dira. Ikastaroan sartzen diren hilabetetik aurrera kobratuko zaie kuota.

Udaleko Kultura eta Kirol Arloak eskubidea du ordutegiak eta programaren instalazioak aldatzeko, baita izen emate kopuruaren arabera jarduera bat bertan behera uzteko ere."

Artziniaga, 2024ko abenduaren 16a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES